

Industria Garbia

Maidor Etxaide*

Industria Garbia Egitaraua Euskal Autonomia Erkidegoko industri sektore poluitzaileenei beren ingurugiro-arazoak konpontzeko eta, ondorioz, merkatuan lehiakor izaten laguntzeko tresna izateko sortu da.

Ingurugiroa eta industri lehiakortasuna uztartu nahi dituzten Europako haize berriek Euskal Herriko industria etengabe akuilatzen dihardute. Premia berriak sortzen ari dira eta enpresak eraberritzeko erronkari erantzun beharrean daude, baldin eta ez badute lehia horretan galtzaile atera nahi. Ingurugiroa zaintzeko pausoak ematen hastea ez da gauza erraza, eta horrelako bide bati ekitea are zailagoa egiten zaie urteetan inolako berrikuntzarik

izan ez duten industria zaharkituei. Euskal Herriko enpresa askoren egoera da hori eta, bistan da, bultzadaxoa behar dute beren geldialditik irten eta mundu modernoan murgiltzeko. Behar horri erantzun nahirik, Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailordetzak Industria Garbia izenaz bataiatuiko programa ipini du martxan industriari bide hau jorratzen laguntzeko asmoz. Industriak atmosfera, ingurune urtar eta lurzoruari eginiko erasoak ezabatzea edo gutxienez leuntzea da egitaraua-

ren xedea, horretarako minimizazio-neurriak eta, beharrezkoa denean, neurri zuzentzaile osagarriak ere proposatzen dituela.

Industria Garbia programarekin Europako Batasunaren 96/61 Poluzioaren Prebentzio eta Kontrolerako Arteztaruaaren inplikazio eta mamiaren berri eman nahi zaio Euskal Autonomia Erkidegoko industri sektoreari, arteztarau hori izango baita epe laburrera Europako Batasun osoan industriaren ingurugiro-portaera arautuko duena. Beraz, oso garrantzizkotzat jotzen du Industria Garbia Programak industriari egoeraren larritasunaz ohartaraztea eta egokitze-prozesuei ekitea.

Borondatezko akordioa

Ilido honetan, 96/61 Arzteztarua lehenatasunez jotzat jotzen diren sektore (energia, kimika, metalurgia...) eta elementu poluitzaileak hautatu ditu Programak xedetzat. Bada, sektore horie-





BABESLEA



Eusko Jaurlaritzaren

Lurralde Antolamendu,
Etxebizitza eta Ingurugiro Saila

tako enpresak libre dira Programarekin bat egiteko, hala nahi badute, eta laguntza jasoko dute baldin eta, egokitze-egitasmo baten bidez eta epe jakin batean, gaurko poluzio-mailak Egitarauak ezarritako mailetara jaisteko konpromisoa hartzen badute. Administrazioetik jasoko duten laguntza askotarikoa izango da, minimizazioarako teknologia egokien berri izatetik hasi eta dirulaguntzak jasotzeraino. Deialdia joan den maiatzaren 15ean argitaratu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Aldizkari Ofizialean, eta interesaturik dauden enpresek uztailearen 15a bitarteko epea dute eskarria aurkezteko.

Egitarauaren oinarritzko irizpideak IPPC Arteztarauak sustaturiko berberak dira:

- Poluzioaren ikuspegi integratua
- Prebentzioa "hodi-bukaerako" konponbideen aurretik ipintzea

- Ingurugiro-eraginaren minimizazioa bultzatzea
- Industrian ingurugiro-hezkuntza bultzatzen jarraitzea
- Ondoko irizpideak gogoan hartzea: "Gehiegizko kosturik gabeko teknologia erabilgarri onena (BATNEEC)" eta "Ingurugiro aldetik bideragarria den aukera (BPEO)"

Galdategien azpisektorea lasterketa-buru

Industria Garbia Programak hiru sektore edo arlori heldu die oraingoz: burdina-galdategiak, pintura eta disolbatzaileak, eta azkenik, papera eta paper-orea. Hiruotan eman dira jada pausoak, baina galdategietan eginiko lana da hiruretan aurreratuen dagoena. Azpisektore horren inguruan 35 enpresa daude, 3.900 lanpostu zuzen bildu eta salmenten % 52 atzerrian burutzen dituztenak. Durangaldean dago galdategien kontzentrazio handiena,

eta gainerakoak Bilbo aldean, Laudion eta Gipuzkoako zenbait puntutan barreiatuta daude.

Industri mota honek eragindako ingurugiro-arazorik handienak atmosferarako emisioak (partikulak, gasak, keak eta usainak) eta hondakin solidoak (hareak eta zepak) dira. Programaren laguntzaz kubiloteetako partikulen eta karbono monoxidoaren emisioak gutxitzea (% 90 eta % 50, hurrenez hurren), harea agortuen isuria % 65 murriztea eta airerako emisioak etengabe neurtu, kontrolatu eta erregistratuko dituzten sistemak ezartzea da. Egin beharreko guztirako inbertsioa 1.800 milioi pezetakoa da, dirulaguntzak 300 milioiokoa izanik, guztiaren % 15 gutxi gorabehera. Erabakitako neurri guztiek 1999ko apirilera ezarrita eta martxan egon behar dute.



* HAIZEA Ikerketa eta Dokumentazio Zentroko kidea.

